

ZIBERDELINKUENTZIA

Adineko pertsonak, zibergaizkileen jopuntuan

2022an, ziberdelinkuentziak %72 egin zuen gora, hiru urte lehenago erregistratutako online delituekin alderatuta. Zehazki, iaz 375.506 ziberdelitu gertatu ziren. Horrek erakusten du gaizkileak gero eta erosoago dauden eszenatokia dela Internet. Gaur egun, Estatu espainolean, bost delitutik bat sarean egiten da. Eta adinekoak dira helburu nagusietako bat.

Adituen arabera, hainbat arrazoi daude hori azaltzeko. «Iruzurgile horiek trebetasun teknologiko txikiagoez, fede onaz eta beldurraz baliatzen dira», dio Albert Jove UOCeko Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio Ikasketetako irakasle kolaboratzaileak. Adinekoak helburu nagusizat dituzten iruzurrik ohikoenen artean honako hauek daude: hornidura bat edo prestazio bat ez mozteko deia, iruzurrezko salmenta eskaintza bat edo zerbitzu tekniko faltsu bat. Kasu guztietan diru kopuru bat online ordaindu behar dutela esaten diete.

Hala ere, ohartarazi dute adinekoak ez direla biktima bakarrik. «Arazo oso larria da, guztioi eragiten diguna, baita esperientzia digitala duten pertsoneri ere», nabarmendu du Jovek. Hauek dira iruzurrak saihesteko aholku batzuk.

Pasahitz seguruak eta partekatzen ez direnak. Pasahitz luzeak sortzeaz gain –hamar karaktere baino gehiagokoak eta letra larriak, minuskulak, zenbakiak eta sinboloak dituztenak–, gomendioa pasahitz horiek inoiz ez partekatzea da. Bakarrak eta pertsonalak dira. Kontu jakin baten pasahitza

TEKNOLOGIA / GAUR8

Delitugileek eremu berria topatu dute Interneten. Gaur egun, Estatu espainolean egiten diren bost delitutatik bat sarean egiten da. Ziberdelinkuentzia gorantz doa eta adineko pertsonak dira jopuntu nagusietakoa. Trebetasun teknologikoa garatzea eta zenbait gomendio kontuan hartzea eraginkorra izan daiteke.

eskatzen duen mezu edo telefono dei bat jasotzen bada berriro aktibatu ahal izateko –segurtasun arazo bat egon omen delako– adituen gomendioa ez egitea da.

Era berean, lagunekin edo familiakoekin ere ez partekatzea gomendatzen da. Ahazteko beldurra izanez gero, pasahitzen kudeatzaile batean gorde daitezke. Horiek partekatzeak segurtasun-arriskuak ditu, baita dakiena konfiantzazko pertsona bada ere, nahi

Ziberdelinkuentziaren aurrean garrantzitsua da trebetasun digitalak garatzea, edozein adin izanda ere. Irakasteko pazientzia eta ikasteko jarrera garrantzitsuak dira. GETTY IMAGES

gabe online iruzur batean eror baitaiteke, eta horrek ziberdelitu baten biktima izateko aukerak bikoizten ditu.

Inoiz ez fidatu. Ziberdelitugileek jarduten duten iruzurrezko webguneetara birbideratzen duten mezuak ohikoak dira. Horregatik, adituen aholkua, besterik ezean, mesfidati izatea da. «Egiaztatu, ez sinetsi pantailatik ateratzen den guztia (mugikorra, tableta, ordenagailua). Beti egiaztatu behar dira bidaltzailea eta webgunea», ohartarazi du Albert Jovek. Egia esan, webguneak hain ondo daude faltsututa, ezen zaila izan baitaiteke benetakoa eta iruzurra bereiztea. Hori jakiteko modu bat Interneteko helbidean (URL) gelditzea da, jatorrizko webgunea dela egiaztatzeko, eta ez antz handia duen beste bat, baina letra ba-

tzuen ordeez beste batzuk dituen –adibidez, ele (l) ordeez i maiuskula (I)–.

Sen on handia. «Zergatik irabaziko duzu sari bat webgune batean sartuta? Nork deituko dizu promozio zoragarri batekin zure bankuko datuak ematearen truke? Zentzurik onena sen ona da, eta Interneten ekintza bat egin aurretik bi aldiz pentsatu behar da», adierazi du UOCko irakasle kolaboratzaileak.

Mehatxuen aurrean amore ez ematea. Batzuetan, erasotzaileek enpresa, banku edo zerbitzu ofizial handi baten itxura egiten dute, eta erabiltzaileari online kopuru bat ordaintzeko eskatzen diote, hornidura bat eten ez diezaioten edo prestazio bat jasotzeko utz ez diezaion. Iruzurra izan ohi da. Adituen gomendioa da presa-



ka ez jardutea, ordainketa ez egitea eta, lasaiago egoteko, dena ondo dagoela egiaztatze-ko enpresari deitzea.

Ez izan zalantzarik konfiantzazko norbaiti galdetzeko (laguna, seme-alabak, biloba...). Zibersegurtasunean maiz errepikatzen den esaldi bat dago; bi erabiltzaile mota daude: eraso bat jasan dutenak eta eraso bat jasan dutela ez dakitenak. «Denoi gerta dakiguke (eta gertatzen zaigu). Adineko askok lotsa sentitzen dute eta dagoeneko erabat gaituta ez daudelako gertatzen zaiela pentsatzen dute. Hori akatsa da», dio Jovek. Laguntza jasotzeko beti gertuko norbaitekin kontsultatu behar da.

Ez utzi fede onak gida zaitzan. Iruzurgile askok WhatsApp eta antzeko plataformak erabiltzen dituzte delituak egiteko. Eta ia guztiak erabiltzailearen fede onaz baliatzen saiatzen dira. Esaterako, txio baten bidez, Espainiako Polizia Nazionalaren kontuak duela hilabete batzuk ohartarazi zuen iruzur batean gaizkileak emakumeekin harremanetan jartzen zirela beren seme-alabak zirela esanez eta arazo larri bat konpontzeko dirua premiaz sartzeko eskatuz. Kasu horietan prozedura seguruena da idazten duen pertsonari telefonoz deitzea, laguntza eskatzen ari dena senide hori dela ziurtatzeko.

Nortasun lapurreta saihesteko daturik ez ematea. Ziberdelitugileei lana ez errazteko urrezko araua konfiantza zorrotzekoa ez den inori datu pertsonalik ez ematea da. «Zure NANA fotokopiatzen ez uztea, horretarako arrazoi oso justifikaturik ez badago, eta zure NANA edo

beste dokumentu batzuk Internetera inoiz ez igotzea, erabat seguruak ez badira, zure kredentzialak edo ordezteak lapurtzea saihesteko oinarritzko segurtasun gomendioak dira».

Saioa itxi. Edozein kontutatik irtetean beti itxi behar da saioa. Are gehiago, saioa ohikoa ez den ordenagailu batean edo sare publiko batean hasi bada; kasu horretan, zibersegurtasuneko kontseilu hori funtsezkoa da. Izan ere, adituek gomendatzen dute ahal den neurrian ez sartzeko konfiantza sare publikoetatik.

Oinarritzko prestakuntza. Adineko batzuek, aholku horiek jarraitzeko, mundu digitalean hainbesteko esperientzia ez izatea da ziberdelinkuentziaren abantailetako bat: horrek aukera asko ematen dizkie lineako delitugileei. Horregatik, funtsezkoa da adinekoek ere oinarritzko prestakuntza izatea, adibidez, pasahitzen administratzaileek nola funtzionatzen duten azalduta. Hori lortzeko, beharrezkoa da haien gaitasunetan konfiantza izatea.

«Askotan gertatzen da, gizarte arloan, adinekoak ez direla gai, ez dituztela trebetasunak sareetan mugitzeko, Internet erabiltzeko... Ideia horiek ez dira erabat errealak. Kontua ez da ez dutela gaitasunik edo ez direla gai baliabide horiek aprobetxatzen jakiteko, baizik eta, askotan, irakasten duenaren pazientzia eskasak edo gure zurruntasunak –guk egingo genukeen bezala ikas dezaten nahi dugulako–, azkenean, beraiek ezgai sentiarazten dituztela», nabarmendu dute adituek. Denbora, konstantzia eta irakasteko jarraera egokia behar dira, beraz.

Tradizioa ala madarikazioa

Koldo ALZOLA

Asteazkenean bukatutzat eman genituen Gasteizko festak. Zeledonon igoerak amaiera eman zion astebeteko jaialdiari, Gorka Ortiz de Urbinak Zalduondoko nekazaria gorpuztu duen azkenari, hain zuzen ere. Ez naiz ni bereziki tradiziozalea, baina aitortu behar dut erromantiko samarra iruditut zaidala beti beste herri batzuetan santuak edota balentria militarren protagonistak omentzen dituzten bitartean gure jaiaren pertsonaia gorena baserritar zurrutero bat izatea. Holakoxea baita gure tradizioa. Duela berrogeita hamar urte inguruko –ez gehiago– lagun kuadrilla baten burutazioa –arrote xelebre hura irudikatzen zuen panpina kanpandorretik behera botatzea, alegia– egun tradizio bihurtu du herriak, aho batez eta errepikatuaren errepikatuaz. Oker dabilta tradizioak «betidanik horrelakoa izan delako» tradizio direla dioten horiek, ezer ez baita betidanikoa. Usadioak noizbait sortu eta, garai berrietara egokitu ezean, desagertu egiten dira eta.

Aurten, gainera, jakin dugu Ortiz de Urbinaren aroaren atzetik, pertsonaiaren hezur-haragizko bertsioa aukeratzeko irizpideak aldatuko dituztela eta orain arteko baldintzetako bat, gizonezkoa izatea, bertan behera geratuko dela. Beste era batera esanda, hurrengo Zeledon Zeledonia izan liteke, brusen kuadrillek hala adostuko balute. Lasaitu nau egiaztatzeak iragarpenak ez duela polemika berezirik piztu hirian eta, oro har, normaltasunez hartu dela.

Esango nuke bere tradizioak berdintasunezko irizpideen arabera naturaltasunez eguneratzeko eta bilakatzeko gai den herria eredugarria dela jaietatik herritarren erdia baztertzen duten edota parada militarrek zer ospatu hoberik ez dutenen aurrean. Gutxiago falta da. Jaitsi dadila berri Zeledonia, edo batek daki, akaso Zelequeer, eta has dadila festa! •